ESP. KODEA.	**2016ESEP0006**
ESPEDIENTEA	
TITULARRA	BEASAINGO UDALA-COMISION DE EUSKERA
TOKIA	

PROZEDURA IREKI BIDEZ BEASAINEN HIZKUNTZA ERREFORTZUA BEHAR DUTEN HAURRENTZAKO ZERBITZUA KUDEATZEKO BALDINTZA OROKORREN AGIRIA.

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza orokorren agiri honen helburua zera da, Beasainen hizkuntza gaitasun nahikorik ez duten haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurrei hizkuntza errefortzua emateko zerbitzua kontratatzea.

1.1. Zerbitzuaren edukia

Helburu nagusia haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako haurren hizkuntza gaitasuna areagotzea da eskolaz kanpo. Eskolaz kanpoko jardueren bitartez euskararen ezagutza eta erabilera sustatu nahi dira, hizkuntzarekin zailtasunak dituzten haurrei eta eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dutenei euskara hobetzeko zerbitzua emanez. Ikastetxeek identifikatuko dituzte haur horiek. Zerbitzu hau euskaraz eta euskal kulturan oinarrituta eskainiko da.

Helburu nagusi hori lortzeko, honako helburu zehatzak bete beharko dira:

1. Hizkuntza hobetzeko interbentzio zuzenak egingo dira (jolas librerik ez) eta horretara bideratutako jarduerak programatuko dira.
2. Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatuko dira.
3. Ekintza zehatzak egingo dira:
    a. Euskara gaitasuna bereganatzeko
    b. Euskararen erabilera areagotzeko
    c. Laguntalde euskaldunetan integratzeko
4. Zerbitzua antolatzerakoan, adin tarte bakoitzaren ezaugarriei egokitutako programazioa egingo dira.

2. KONTRATUZKO DOKUMENTUAK

a) Baldintza orokorrak jasotzen dituen plegu hau, bere eranskin eta guzti.
b) Lizitatzaileak aurkezten dituen dokumentazioa eta eskaintza teknikoa.
c) Kontratua.

Dokumentu horiek guztiak esleipendunak sinatu beharko ditu bere adostasunaren erakusgarri modura kontratua sinatzen den une berean, eta kontratua osatzeko dokumentazioari erantsiko zaizkie.

3. KUDEAKETA ERREGIMENA

Esleipendunak hizkuntza errefortzua eskainiko die haur eta lehen hezkuntzako udalerriko haurrei, kontratuzko dokumentu ezberdinetan ezartzen diren baldintzak zorroztasun osoz betez.

Bere kontura izango dira kudeaketa egokia egiteko beharrezkoak diren gastuak.

Esleipendunak ez du kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango kudeaketatik eratorritako matxurak, galerak edo kalteak direla eta, ezta kudeaketaren indarraldi-epea betetzean kudeaketa etetearen, epearen luzapena eskatzearen edo indarreko kontratua etetearen ondorioz sortutakoagatik ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testuak dioenaren arabera.

4. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren urteko prezioa ondorengoa da: 40.500,00 + BEZ urteko.
Udalak esleipendunari ordainduko dio honek egindako eskaintza ekonomikoari dagokion kopurua. Ikasturteko kopuru hori bederatzi hilabetetan banatuko da eta horrela ordainduko da eta ordainketa egiteko kontratistak dagokion faktura aurkeztu beharko du.
Ez da preziorik berraztertuko.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Ikasturte bateko iraupen epea ezartzen da. Epe hau luzagarria izango da beste urte batez, gehienez ere.

6.- KONTRATUAREN EDUKIA

6.1. Esleipendunaren betebehar orokorrak

Esleipendunak honako betebeharrak ditu:

- 4-12 urte bitarteko hizkuntza gaitasun nahikorik ez duten udalerriko haurrei hizkuntza errefortzua emango die.
- Ikastetxeek bideratutako haurrei zuzeneko arreta eskainiko zaie eta horretarako haurrak taldeka banatuko dira adinaren eta hizkuntza helburuen arabera.
- Esleipenduna udaleko teknikariekin harremanetan egongo da.
- Haur bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitutako ibilbide proposamena egingo zaio euskara gaitasuna ahalik eta lasterren lortzeko.
- Kontratistak haur horien jarraipenerako koordinazioa egingo du ikastetxeekin.
- Esleipendunak udalak utzitako lokalak egoki erabili eta zainduko ditu.
- Administrazioak esleipendunaren eskura jarritako informazio, dokumentazio, informatika-programa eta gainerako baliabide edo datuak administrazioaren jabetzakoak dira, eta soilik kontratataturiko lanak garatzeko beharrezkoa den moduan erabili edo baliatuko dira. Esleipendunak kontratua amaitzean haiek itzuli edo ezereztatzeko konpromisoa hartzen du.
- Lizitazioaren prezioan barne daude ondorengo gastuak:
  - Programazioari eta ikasmaterialei dagozkien gastuak.
  - Material didaktikoa

- Bulegoko materiala, fotokopiak, etab.
- Fondo ludikoa mantentzeko egin beharreko erosketak.

Horretarako, Enpresa esleipendunak dagozkion eskuratze, erosketa eta enkarguak kudeatuko ditu.

- Enpresa esleipendunak egindako jardueren txostena aurkeztu beharko du hiruhilean behin. Txosten horretan ondorengoa jaso beharko da:

  - Erabiltzaileen asistentzia.
  - Erabiltzaile bakoitzari jarritako helburuak eta horiek lortzeko prestatutako ibilbidea.
  - Helburuen betetze maila.
  - Egindako jarduerak.
- Zerbitzu hori emateko giza-baliabideak aurreikustea, zerbitzuari lotutako langileen zerrenda eta bakoitzaren zereginak adieraziz.
- Zerbitzua behar bezala eskaintzeko eta pertsonalaren bajak, baimenak… ordezkatzeko behar diren langileak jartzea Udalari horren berri emanez.
- Esleipenduna Udalera bertaratu beharko da honek hala eskatuta, zerbitzuaren kudeaketarekin lotutako eginkizunak betetzeko.
- Zerbitzuaren jarraipenerako batzordea sortuko da eta hiruhilean behin egingo du ohiko bilera. Besteak beste hauek osatuko dute batzordea: udal teknikariak, udaleko ordezkari politikoak eta enpresa esleipendunaren ordezkariak. Zeregin hauek izango ditu jarraipen batzordeak:
  - Zerbitzuaren garapena zein kalitatea ebaluatzea.
  - Ematen diren zerbitzuetan egin beharreko aldaketak aztertzea eta proposatzea.
  - Kontratuak irauten duen denboraldian gertatzen diren gorabeherak aztertzea eta bidezko konponbideak proposatzea.
  - Zerbitzuaren memoria aurkeztea euskaraz eta gaztelaniaz eta hurrengo hilabeteetako jarduna adostea.
- Plegu honetan ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea eta betearaztea.

6.2. Lan eta gizarte betebeharrak

Esleipenduna enpresari autonomo eta independentea izango da erabat. Bera izango da erabateko erantzulea Udalaren aurrean nahiz Gizarte Segurantza eta Zerga Administrazioaren aurrean.

Orobat, lan-harremanetatik edo enpresa jarduera garatzeko kontrata ditzakeen langileekiko bestelako harremanetatik erator daitezkeen betebeharren erantzule izango da. Hortaz, era guzietako soldata, ordainketa, aseguru, subsidio nahiz erreklamazioen erantzule izango da gizarte arloko jurisdikzio-ordenako organoen aurrean eta, inola ere ez da ulertuko edo suposatuko aipatu langileen eta Udalaren artean inolako harremanik dagoenik. Gainera, enpresa horren kontratua etetean Udalak enpresariaren ordez ordainketa egin beharko duenik ere ez da ulertuko.

Enpresariak lan arloan, Gizarte Segurantza arloan, Lan-arriskuen prebentzio arloan nahiz kasu honetan aplika daitekeen bestelako edozein arlotan indarrean diren xedapenak bete beharko ditu eta, horrez gain, zerga betebeharrak bete beharko ditu. Aipatutako betebehar

fiskalak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela egiaztatu beharko du Udalean, eskatzen zaion aldiro.

6.3. Hizkuntza betebeharrak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Euskararen Udal Ordenantza.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozedura arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da. “18 d) Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; betez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berberak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Honakoak dira kontratuaren betebeharrak hizkuntzarekiko:

Administrazioarekin:

- Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura,) euskaraz izango dira. Kontratuaren helburu diren proiektu txosten edo lanak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar ditu kontratistak.

Herritarrekin:

- Herritarrei ahozko harrera emateko garaian (telefonoz, aurrez aurre) lehen hitza euskaraz izango da. Jakinarazpenak nahiz komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta bestelako agiriak) euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, Udal Ordenantzaren arabera eta beti ere, herritarrek aukeratutako hizkuntzan erantzuna ematea bermatuko da.

Hizkuntza paisaia:

- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.
- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.
- Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira euskarari lehentasuna emanez, beti ere, Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Era berean, esleipendunak euskara eta gaztelania erabiliko ditu megafonia bidez zabaltzen diren mezuetan eta euskara hutsez hartzailearen ezaugarriek hala eskatzen dutenean (hartzaileak haurrak direnean esate baterako).

Zerbitzuan jartzen diren musika, irratia, telebista eta gainerako entzutekoak eta erabiltzaileen eskura jartzen diren eskuorri, egunkari eta aldizkariak euskaraz egongo dira.

6.4. Langileak

Plegu honetan zehazten den zerbitzua emateko 3 langile aurreikusten dira lanaldi erdiko dedikazioarekin.

Zerbitzuan lan egingo duten langileek Gizarte edo Hezkuntza graduetako bat izan beharko dute. Derrigorrezko titulazio horrez gain bereziki baloratuko da Haur edo Lehen Hezkuntzako gradua, Euskal Filologian gradua edo Pedagogian gradua izatea.

Langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan betetzeko.

6.5. Azpiegiturak

Hona Udalak zerbitzu bakoitzaren eskuragarri jarriko dituen azpiegiturak:

Loinazko San Martin plaza azpian kokaturik berezko sarrera duen lokala eta bertako ekipamendua.

Ezkiaga Gizarte-etxeko lokalak (bi areto, biltegia eta bulegoa) eta haietako ekipamendua.

Horrez gain, Udalak esleipendunaren eskura jarriko ditu zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren altzariak, informatika-ekipamenduak eta programak.

6.6. Zerbitzuaren egutegia

Zerbitzua urtean zortzi hilabetez eskainiko da, urriaren 1etik maiatzaren 31 bitartean, astelehenetik ostegunera.
Hizkuntza errefortzu beharra jasotzeko ikastetxeek bideratutako haur bakoitzak astean 3 orduko errefortzua jasoko du.

6.7. Erantzukizun asegurua

Esleipendunak erantzukizun osoa izango du Udalaren eta hirugarrenen aurrean. Horretarako, erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko du, era berean, dagozkion primak puntualtasunez ordaindu beharko ditu, hala eskatzen zaionean Udalean aurkeztu beharko duelarik bai poliza eta baita hura ordaindu izana egiaztatzen duen ordain-agiria.

Edozein kasutan, arrisku-estalduraren gutxienezko zenbatekoa hau izango da: 601.012,10 €

6.8. Lagatze debekuak

Zerbitzua lagatzea debekatuta dago.

6.9. Ikuskapenak

Esleipendunak Udalak eskatutako informazio guztia (kontabilitatekoa nahiz kudeaketari buruzkoa) aurkezteko betebeharra izango du. Horretarako, beharrezkoak diren administrazio-mekanismoak abiarazi eta informatika tresnak hornituko dira. Informazio

horren aurkezpena ukatzea edo informazio faltsua aurkeztea nahikoa arrazoi izango da kontratua eteteko.

6.10. Erreklamazio-orriak

Esleipendunak erreklamazio-orrien liburu edo sorta bat izan beharko du, indarreko legediaren arabera.

7.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

7.1. Esleipena egiteko prozedura

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratu tipoa: zerbitzuak. Sektore publikoko Kontratu Legeko Testu Bategineko II. eranskina. 27. Beste Zerbitzuak

Honakoak dira kontratuaren esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko eskaintzen balioespen-irizpideak, ematen zaien haztapenaren arabera goitik behera emanak:

- 1. irizpidea: Proposamen ekonomikoa: gehienez 30 puntu.
Prezio ekonomikoenari emango zaio puntuazio gehien. Gainerako eskaintzen puntuaketarako formula jakin bat aplikatuko da: prezio baxuenaren eta lizitatzaileak egindako eskaintzaren (une horretan balioesten dena) arteko zatidurak ematen duen emaitza, 1. irizpidearen baitan aplikagarri den puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da,

LP =(Eb/Le)*30
LP: Lizitatzailearen puntuaketa
Eb: Eskaintza baxuena
Le: Lizitatzailearen eskaintza

- 2. irizpidea: Jarduera memoria: gehienez 70 puntu

Balioespenean alderdi hauek hartuko dira aintzat:
Hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko proposatutako jarduerak: 45 puntu
Titulazioa:10 puntu (Euskal Filologia, Haur edo Lehen Hezkuntzako gradua edo Pedagogia)
Kontratuaren helburuak egikaritzeko bitarteko pertsonalen antolaketa eta ordutegia: 15 puntu

7.2. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena

Kontratazio-prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural nahiz juridikoek parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. Artikuluan ezartzen dituen kontratatzeko debekurik ez badute. Haien kaudimena aurrerago adieraziko diren bitartekoen bidez ebaluatuko da, “A” gutun-azalean barneratu beharko diren dokumentuei buruzkoetan (Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena).

Halaber, beren kabuz edo haiek baimendutako pertsona baten ordezkaritzarekin egiazta dezakete, horretarako nahiko botere emanda. Pertsona juridiko baten ordezkaritzan bertako kideren batek jardungo balu, dokumentu bidez ziurtatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria lehen adierazteko ezgaitasun-arrazoien eraginpean egongo da, kontratatzeari dagokionez.

Halaber, enpresariek ere, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa burutzeko eskatzen den enpresa edo lanbide gaitasun frogatua izan beharko dute.

7.3. Proposamenen aurkezpena

Kontratazio honetako espedientea eta hartara atxikitako agiri eta dokumentazio teknikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio honen iragarpena agertu eta hurrengotik aurrera aztertu ahal izango da eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte, Kontratazio organoaren barneko kontratatzailearen profilean. Hartara jarraian adierazten den informatika-atari edo web gunearen bidez sar daiteke: www.beasain.eus.

Proposamenak udal-erregistroan aurkeztuko dira 2016ko irailaren 5a baino lehen, 08:00etatik 14:00etara.

Lizitatzaileek, hala badagokio, agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz eskatutako informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako epea baino sei egun lehenago helaraziko da, betiere, eskaera, gutxienez, aurrez adierazitako proposamenak jasotzeko epea bete baino zortzi egun lehenago egiten bada.

Proposamenak jasotzeko ezarritako epearen ondoren aurkeztutako proposamenak ez dira onartuak izango, epea amaitu aurretik Postetxean entregatu zirela egiaztatu arren. Soilik, onartuak izango dira Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz helarazten bazaio eskaintzaren igorpen-dataren justifikazioa, postaz igorritako egun berean. Posta elektroniko bidezko iragarkia bidaltzean Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4. artikuluan haren baliozkotasunari buruz ezartzen dena bete beharko da.

Lizitatzaileek itxitako hiru gutun-azal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte. Horietako bakoitzean hau idatzi beharko da “BEASAINEN HIZKUNTZA ERREFORTZUA BEHAR DUTEN HAURRENTZAKO ZERBITZUA KUDEATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENAK”.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaeratan egiten duen adierazi beharko da, hiru gutun- azalak sinatuta egon beharko direlarik.

Horrez gain, gutun-azal bakoitzean, dagokion edukia adierazi beharko da, honako hauek barne dituela:

“A GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”

“B GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEKOAK EZ DIREN GAINERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK”

“C GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA”

“A GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”

Gutun-azalak dokumentu hauek izango ditu bere barnean:

a) Enpresariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak egiaztatzekoak. Izaera egiaztatutzat joko da:

a) 1. Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa edo moldaketa eskritura aurkeztu beharko da, hala badagokio, aplikatu ahal zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribapena eskatu ahal zaionean, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatua egotearen agiria eta dagokion identifikazio fiskaleko zenbakiarekin (IFZ) batera. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasunaren egiaztapena, eraketa eskritura edo dokumentuaren bidez, ala, fundazio estatutu edo egintzaren bidez aurkeztuko litzateke, bertan bere jarduera arautzen duten arauak aipatu beharko direlarik, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri direnak.

Enpresariak Europar Batasunaren barneko Estatu bateko kide ez espainiarrak badira, kokaturik dauden Estatuaren legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, bestela zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikagarri diren erkidegoko xedapenen arabera.

a.2. Lizitatzaileak berezko izenez jarduten badu, Nortasun Agiria (N.A.) edo dagokion estatuak emandako dokumentu baliokidea aurkeztu beharko da.

a.3. Proposamenak izen laburra erabiliz sinatzen dutenak, N.A. dokumentuaren kopia aurkeztu beharko dute, horretarako nahikoa ahalmen dutela adierazteko agiriarekin batera.

b) Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantza arlokoa, teknikoa edo profesionala ziurtatzeko agiriak, hau da:

- Arrisku profesionaletatik ordaindu beharreko kalte-ordainen asegurua, gutxienez 601.012,10 €-koa edo kasua bada, kontratatzeko konpromisoa esleipenduna izanez gero.

c) Lizitatzailearen kaudimen teknikoa edo profesionala, ziurtatzeko agiriak:

.

- Enpresariaren eta enpresa zuzendaritzaren titulazio akademikoak eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenena, hau da:

    1. Gizarte edo Hezkuntzako gradua.
    2. C1 mailari dagokion euskara gaitasun agiria.

Pertsona juridikoa denean, bere helburu edo xedeak kontratuaren helburuarekin zer ikusia izan behar du, estatutu edo fundazio nahiz sozietate arauen arabera eta behar den moduan egiaztatu beharko da. Kasu honetan nominatiboki izendatu beharko da Beasaingo Udalerako zerbitzuak beteko dituen pertsona eta honek aipatutako baldintzak bete beharko ditu.

d) Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuta, lizitaziora enpresari bat baino gehiago aurkeztuko balitz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan xedatutako moduan eta, halaber, Aldi baterako Enpresa Elkartea sortzeko konpromisoa erakutsi beharko du esleipendun ateraz gero. Era berean, proposamenean zehaztu egin beharko dute AEEko kide bakoitzak zein lan beteko duen, bakoitzaren kaudimen eskakizunak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

e) Sektore Publikoko Kontratuen Legea Testu Bateratuaren 60. artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diolako aitorpen sinatua, hala nola, indarrean dauden xedapenak ezartzen dituen Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga betebeharrak betetzen dituelako aitorpen sinatua. Horiek aurkeztu beharko dira, bi horien gaineko ziurtagiria aurkeztu ezean.

f) E.J.Z.-n kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, izena eman duelako egiaztagiria. Horretarako, alta aurkeztuz, aurtengo ekitaldiari badagokio, edo, beste kasuetan, E.J.Z.-ren azkeneko ordain-agiriari dagokiona; bestela, dagokion epigrafean alta egoeran eman izanaren aitorpena aurkeztu beharko da, hura eskatzen denean.

g) Adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria.

h) Atzerriko enpresek Espainiako edozein arlotako Epaitegi eta Auzitegietako araubideari dietelako aitorpena aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz, zuzenean zein zeharka, sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko eginda, hala behar izanez gero.

i) Ohartarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea.

“B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI EBALUATZEKOAK EZ DIREN BALIOESPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Gutun-azal horretan proposamen teknikoari buruzko dokumentazioa sartuko da automatikoki ebaluatzekoak ez diren esleipen-irizpideak egiaztatzeko dokumentazioarekin batera. Azken horiek agiri honetako 5.2. klausulan adierazten dira.

“C GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA”

Gutun-azalean dokumentu hauek sartuko dira:

a) PROPOSAMEN EKONOMIKO bakarra, jarraian agertzen den ereduaren arabera idatzia:

……..jaun/andrea, helbidea ……. …….. (e)an duena ……..PK, ……..NA zenbakia izanik, …… posta elektronikoaren jabea. Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, nire izenean (edo ……..(r)en ordezkaritzan, helbidea …… (e)an duena …….. PK, …… NA edo IFZ zenbakiaren jabea (pertsona fisikoa bada lehenengoa eta juridikoa bada bigarrena) ……..(e) ak ……(e)rako deitutako prozedura irekiaren jakitun izanik.

Adierazten dut:

1. *Eskainitako prezioa urteko …….. €-koa dela, horri BEZari dagozkion …….. €-ak erantsita.*
2. *Baldintza Teknikoen Agiria, Administraziozko Klausula Berezien Agiria eta kontratu hau gobernatzen duten gainerako dokumentazioak ezagutzen ditudala, eta argi eta garbi nire egiten ditudala oso-osorik.*
3. *Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen legediak eskatzen dituen eskakizun eta betebehar guztiak betetzen dituela hura irekitzeko, instalatzeko eta abian jartzeko.*

…….(e)n, 2016ko …….. ren ……..(e)an.

Sinadura

7.4. Kontratazio mahaia

Honela osatuko da kontratazio mahaia:

- Alkatea edo berak izendatzen duen ordezkari politikoa
- Hizkuntza politika batzordeko zinegotziak
- Kontu-hartzailea
- Udal idazkaria.
- Hizkuntza Politikako teknikaria idazkari lanak egingo dituena.

7.5. Dokumentuak kalifikatzea, enpresak hautatzea eta proposamenak irekitzea

Proposamenak aurkezteko epea igaro ostean, kontratazio mahaiak, aldez aurretik, A gutun-azaleko edukia aztertuko du eta lizitatzaileak garaiz eta formaz aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.

Horretarako, lizitatzailearen gaitasun eta kaudimenari buruzko oharrak edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira. Horiek araudiko 22. artikuluan xedatzen denez, bost egun naturaleko epearen barnean aurkeztu beharko dira. Ohar edo informazio osagarriaren gaineko eskera ahoz komunikatuko die mahaiak interesdunei. Era berean, Kontratazio Organoaren iragarki-oholean eta kontratatzailearen profilean iragarriko da. Modu berean egingo du mahaiak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren akats konpongarrien gaineko komunikazioa. Kasu horretan, lizitatzaileek hiru egun balioduneko epea izango dute hautemandako akatsak zuzendu edo konpontzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, hautemandako akatsak eta ez aipatzeak konpondu ostean, mahaiak agiri honetan zehaztutako hautaketa-irizpideetara egokitzen diren enpresak hautatuko ditu, eta lizitazioan onartutako eta ukatutako enpresak zein diren jakinaraziko du, ukatzearen arrazoiak ere emanez.

Eskaintzak ebaluatzeko agiri honetako 5. klausulan ezarritako esleipen-irizpideak hartuko dira oinarri modura, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 134.2. artikuluan xedatutakoa betez jardungo da.

Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada, edo eskatutako baldintzatan aurkezten ez bada, mahaiak ez onartutzat joko du behin-betikoz.

Horretarako, kontratazio mahaiak kontratatzailearen profilean adierazten den leku, egun eta orduan, 2 zenbakidun gutun-azala (automatikoko ebaluatu ezin diren balioespen-irizpideei buruzko dokumentazio teknikoa duena) irekitzeko ekitaldi publikoa

burutuko du eta hura balioesteaz arduratzen diren teknikoei entregatuko die bertan aurkituko duen dokumentazioa; halaber, egindako guztia dokumentatu egingo da.

Dokumentazio teknikoa, automatikoki ebaluatu ezin dena ebaluatzeko talde teknikoa ondorengoen osatuko dute:

- Beasaingo Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Eskoriatzako Udaleko euskara teknikaria
- Beasaingo Udaleko hizkuntza politika saileko teknikaria

Azkenik, kontratazio mahaiak kontratatzailearen profilean adierazitako leku, egun eta orduan, proposamen ekonomikoari buruzko “C” gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikoa gauzatuko du. Proposamen ekonomikoak irakurri ostean, mahaiak agiri honetan jasotzen diren balioespen-irizpideen arabera puntuatuko ditu proposamen ekonomiko horiek.

Jarraian, kontratazio mahaiak aurkeztutako proposamenei dagozkien balioespen-irizpideak aplikatu osteko EMAITZAK, akta, jasotako dokumentazioa, esleipen-proposamena eta egoki ikusten dituen oharrak helaraziko dizkio kontratazio organoari.

7.6. Esleipena, formalizatzea eta gastuak

Kontratazio Organoak eskaintza ekonomiko onuragarria aurkeztu duen lizitatzailea deituko du, hamar egun balioduneko epearen barnean (eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita) hauek justifikatzeko dokumentazioa aurkez dezan:

- Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak betetzen dituela edo Kontratazio Organoari horri buruzko egiaztapena zuzenean egiteko baimena emanez.
- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta egoeran izatea.
- Egokia den behin-betiko bermea eratu izana, esleipenaren zenbatekoaren %5ari dagokiona, Balio Erantsiari buruzko Zerga aparte.
- Arrisku profesionalen gaineko aseguru bat izatearen ziurtagiria izatea, 610.000 €-ko balioa duena.

Dagozkion ziurtagiriak baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz igorri ahal izango dira.

Eskatutakoa adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da. Kasu horretan hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera aurkez dezala, eskaintzen araberako sailkapeneko hurrenkerari jarraituz.

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso ostean bost egun balioduneko epea izango du kontratua esleitzeko. Agirian adierazten diren irizpideen arabera onargarriak diren eskaintza edo proposamenak daudenean, ezingo da lizitazioa mortutzat jo.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, hautagai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Edozein kasutan, jakinarazpenean beharrezko informazioa sartu beharko da, baztertutako lizitatzaileak edo alde batera utzitako hautagaiak, 310. artikuluaren arabera, esleipenaren erabakiaren aurka errekurtsoa aurkez dezan. Errekurtsoak arrazoitua izan

beharko du. Zehazki abuztuaren 5eko 34/2010 Legearen arabera egindako idatzi berriari dagokion Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 135.4. artikuluan ezarritakoa adieraziko da.

Kontratazio Organoak kontratua gehienez bost eguneko epearen barruan formalizatzeko eskatuk dio esleipendunari, horretarako eskaria jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Edozein kasutan, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak egiteko epea irekitzen den egunetik hasita.

8.- IZAERA, ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

8.1. Izaera eta zuzenbide araubidea

Agiri honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du eta bertan adierazten ez den guztirako Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen Testu Bateratuaren arabera eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoaren nahiz maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren arabera, eta hala badagokio, Herri Administrazioen kontratuetan aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera jardungo da.

8.2.Jurisdikzio eskuduna

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe gertuko dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitraiaren bidez erabaki daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorriz.

1. ERANSKINA. INBENTARIOA/INVENTARIO